

Belaunaldi espontaneoak harresia ezagutzen du, ez Jassir Arafat



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Inork uste ote zuen Jerusalem eta Zisjordanian txiki-txikitatik zanpaketa eta bazterketa baizik jasaten ez duten gazte palestinarrek isilik segitu behar zutela eternitatez? 2015eko udazkenean belaunaldi berri bat matxinatu da okupazioaren kontra eta ustez Palestinakoa ondo ezagutzen duten aditu asko harrituta daude.

Labanen Intifada, otso bakarti palestinarren erasoak... horrelako titulu deigarri bataiatu da 2015eko udazkenean Israel-Palestina sututako gudaldi berria.

Urriaren 1ean Henkin senar-emazte kolono juduak hil zituzten tiroz Beit Furik herri inguruan eta hilaren bukararako armada israeldarrak 68 palestinar garbituak zituen. Irailaren 13tik abenduaren erdia bitarteko kontabilitatean, israeldarrak dira 21 hildako eta 252 zauritu, palestinarrek 122 hil, 3.000 zauritu eta 2.400 atxilotu.

Palestinar gazteek eragin duten sute berriak harritu ditu ustez hangoa ondo ezagutzen duten asko. Ezin da laburbildu hirugarren Intifada bat dela esate hutsez, gertakizun isolatuen multzo bat baino askoz gehiago dirudi, gazteen matxinada baten itxura dauka...

Fenomenoa Julien Salingue irakasle frantsesak aztertu du "Génération spontanée en Palestine" artikuluan. Aurten bertan "La Palestine des ONG" eta iaz "La Palestine d'Oslo" plazaratu da Salingue, Paris 8 unibertsitatean zientzia politikoak irakasten dituena.

"Inork uste ote zuen -galdetuz hasi da Salingue *The Conversation* argitaratu artikulua- Jerusalem eta Zisjordanian txiki-txikitatik zanpaketa eta bazterketa baizik jasaten ez duten gazte palestinarrek isilik segitu behar zutela eternitatez?". Jassir Arafat hil eta 11 urtera, belaunaldi berri bat matxinatu da okupazioaren kontra, liderrik ezagutzen ez

duten eta ez ein alderditakoak sentitzen ez diren gaztena.

Espulzioaren belaunaldiak, 1948 inguruan sortuak, 1960ko hamarkadan Al Fatah mugimendua sortu eta borroka armatuari ekin zion. 1967ko okupazioaren belaunaldia izan zen 1987ko Intifadaren protagonista. Orain kaleetara berriro borroka eraman duena *harresiaren belaunaldia* da, Salinguerentzako.

Israel 2000. urtean hasi zen juduen agindupeko lurra palestinarretatik bereizten dituen harresi handia eraikitzen eta 2012rako aurreikusitako lerroaren %62 osatuta zeukan, 440 kilometro. Ezagutza daukatenetik bizimodu osoa murru horrek baldintzaturik ezagutu duten gazteen belaunaldi berriak orain adierazten ditu bere haserre eta ezinegon.

Baina, hau ere berria da, kolono juduei labankadaz edo kotxez erasotzen dieten eta Israelgo armadaren aurrean manifestatzen diren gazteek ez diote inongo liderri obeditzen: "Oraindik ez ditugu ezagutzen matxino gazteen liderrik: karriketan ari dira edo preso daude. Gazteok ez dituzte ezagutu OLP eta Arafat, eta haietako askok ez dakite nor den Marwan Barghouthi, ez bada preso palestinar bat gainerako 6.000ak baino zertxobait famatuagoa".

Ez espero, beraz, horiek kasu handirik egitea lasaitzeko eskariei. Hamasek berak ere ez ditu kontrolatzen, Salingueren ustean. Mugimendu palestinarrek,



nahiz bestelako itxurak egin, gehiago dabilza gazteen ekintzei egokitu nahian horien atzetik hariak mugitzen baino.

Matxino gazteen espontaneotasuna bera da Palestinako mugimendu nazionalak 2000. urtetik daukan lidergo krisiaren adierazgarri.

Zer galdurik ez, ezere beldur ez

Kontua da Palestinaren nazio nortasuna defenditzen duten indar nagusiek, izan ezkerria, Hamas, Jihad Islamikoa edo Fatah, ezin dietela itxaropenik piztu gazteoi: "Osloko *software*aren gatibu -dio Salinguek- eta koadro zaharkituek kontrolatuta, mugimenduok aldentuta daude gazteongandik, eta hauek beren ustezko liderren alderantziz ez daukate zer galdurik".

Osloko bake ituna lehendik aztertua du Salinguek. Harentzako 1993ko irailean izen horrekin Jassir Arafat eta Isaak Rabinen Washingtonen sinatutako bideak porrot egin izana ez da istripu kontua izan, Osloko itunaren letran bezala ari man ere itsatsita zegoen. Itunak ez zituen eten aurreko hamarkadetan palestinarren lurraldeetan ezarritako dinamikak, alderantziz, Israelen okupazio planei beregokitzeko aukera eman zien.

Horregatik, Osloren aurretik eta ondoren hamarkada luzeotako okupazioak agintari eta mugimendu palestinarren artean ere egokitze logikak indartu ditu, autonomia mugatuzko erakundeekin eskuratutako baliabideak helburu



Reuters agentziaren bidez Mussa Issa Qawasma argazkilariak zabalduko irudia urriaren 13an hartuta dago Zisjordaniako Beit El kolonia juduaren inguruetan: Israelgo soldaduei jaurtitzen ari zela eskuetan molotov koktela lehertu zaion gazteari lagunek itzali nahi dizkiote burura zabalduko garrak.

bihurtuz, Israeldarren indarrari aurre egiteko tresna izateko orde: “Luzaz ‘okupazioa arren’ jardutearen poderioz, ‘okupazioarekin batera’ egiten bukatzen da, nahiz eta gero karrikara begira aldarrikapenez betetako hizkera erakutsi”.

Palestinarren artean, ondorioz, askok sentitzen dute ez zaiela komeni tentsioa berriro handitzea, baldin eta ez bada kontrolatzeko modukoa eta okupatzailearekin zerbaiten truke negoziatzekoa. Okupazioaren luzatzeak eta gatazkaren konponketarako itxaropen oro desagertu izanak instituzio palestinarretan dinamika kontserbadoreak sorrarazi ditu, baita askapen mugimenduetan ere.

Palestinako mugimendu eta buruzagi nagusiak defentsiban ikusten ditu Salinguek. Osloko itunean palestinarrak kudeatu behar dituztela aurreikusitako

gune autonomoen kontrola bera bihurtu da helburu, nahiz eta bere garaian uste zen Palestina Estatu bihurtzeko etapa izan behar zutela. Aldiz, kontrol horrek irrika handiak sortzen ditu gaur, herritarren artean oinarria zabaltzea baimentzen duelako, administrazioaren inguruan sortzen diren lanpostuekin.

Osloko prozesua hilda dagoen arren, hartatik sortutako egiturek abantailak eskaintzen dizkiete Palestinako elite politiko eta burokratikoak, bai materialak (nazioarteko laguntzak, soldatak...) eta bai sinbolikoak (nazioarteko harremanak). Horregatik dira eliteok hain uzkur maila handiko gatazken aurrean.

“Matxinatzen ari diren gazte palestinarrak ez dute deus galtzekorik, ez bada beren kateak”, dio Julien Salinguek. Gehienek ez dute lanbiderik, elikatu

beharreko familiarik edo inolako karre-rarik egiteko itxaropenik. Palestinatik udazken honetan kronikak igorri dituzten kazetari askok nabarmendu dute gauza bera liskarretan dabiltzan gazteei dagokienez: zer galdurik ez dute, ezereen itxaropenik ere ez.

Horregatik uste du Salinguek harresiaren belaunaldiak ez diela kasurik egingo berak “bake prozesuaren industria” deitzen duen jardueratik bizi diren liderrei, azken urteotako porrotetatik irakaspenak atera eta belaunaldi berriei lekukoa pasatzeko gaitasunik erakutsi ez dutenei. Palestinarren arteko krisi sakona bideratzen hasteko lehenbizi bake prozesuaren heriotza zertifikatu beharko dela, Estatu batera negoziaketa bidez iristeko oinarri materialak aspaldi desagertu zirela. ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira